



# TXIRRITXOLA

21. ZENBAKIA - 1.997.EKO URRIA - EUSKERA BATZORDEA

## LAN ETA BIZI EUSKERAZ ETA....



ANARTZ ORMAZA UGALDE

### AURKIBIDEA

LEHEN BERBEA EUSKERAZ _____	2
TXIRRITOLEKO IRAKURLE GUZTIEI _____	3
ITXAS ALDEREN BARRIAK _____	4
ZORIONAK BAKIO, ZORIONAK BAKIOTARRAK _____	5
HERRIKO JAIK DIRELA ETA _____	6, 7
UDALEKU IREKIAK BAKION _____	8
UDATIARRAK BE BAKIO _____	9
EUSKEREAN NORMALIZAZINO-RAKO PLANGINTZEA BAKION _____	10, 11
EUSKEREAN JAIAN BAITA ERE _____	12



# LEHENENGO BERBEA EUSKERAZ

Zenbait dendari eta tabernariri:

Txirritxoetik zuzentzen dugun idazti honen bidez udaberrian, konkretuki ekainean, bideratutako kanpainari buruz gatozkizue hitz egiten.

Orduan, eta asmo txarrik gabe, kanpainatik kanpo utzi genituen hainbat merkatarri helburu hori burutzeko gai ez zirelakoan.

Dena den, baliteke anka-sartzeren bat izatea eta norbait minduta sentiaraztea. Hori zuzentzeko asmotan dei egiten dizuegu guregana hurbildu zaitezten eta zuen partehartzeko gogoia adieraz dezazuen. Pozik baino pozago hartuko zaituztegu.

Utzi zuen izena edo komertzioaren izena Kultur-Etxeko sugerentzi buzoian «LEHENENGO BERBEA EUSKERAZ» KAMPAINAN PARTE HARTU NAHI DUT idatziz eta lehenbailen joango gara zeuongana.

BIHOTZ - BIHOTZEZ  
EUSKERA BATZORDEA

## **TXIRRITXOLEKO IRAKURLE GUZTIEI:**

Lan on bat egitea denon esku dago.


Euskera Batzordeak planteatzen dituen gauzen artean, Euskera eguna, Txirritxola eta hainbat gauza gehiago daude. Gauza guzti hauek gure erizpidearekin egiten ditugu, eta lan on bat burutzeko zuen laguntza nahi dugu. Horretarako zuen eritzi «*ona nahiz txarrak*» hartzeko prest gaude. Horrela, zerbait hobetu beharra balego denok parte hartuaz egingo genuke.

○ Beraz, zuon eritzien zain geratzen gara.

Gure batzarrak zabalak dira guztiontzat. Beraietara etorri ezean, utzi zure aholku eta ideiak KULTUR ETXEKO BUZOIAN Euskera Batzordearen izenean.

Gero arte,

EUSKERAZ BATXORDEA.



## **OHARRAK:**

Aurrekoari jarraituz, dagoeneko, etenalditxo bat egingo dugu LEHIAKETA MUNDIALA delako txokoarekin.

Horren orde z baloratuak izango dira zuen partehartze eta sugerentziak.

Ez ahaztu DENBORA PASA jokoan baherizenean ere bagaudela.

**ITXAS-ALDE**REN BARRIAK

«San Simon eta San Juda, joan zan uda eta negua heldu da» dino abestiak. Izan be, uda honetan han-hor-hemenka hainbat ekitaldi izan doguz. Aipagarrienak, Santander aldetik eta Bakion bertan izan doguz aurton. Larroitarrak pozik be pozik itzi doguz be. Baina guztion ganetik, taldearen 25. urteurrena ospatuteko egin genduan editaldi nagusia nabarmendu behar da.



Taldeko kide garanon poztasuna, bada, gorde ezina da. Egon be, makinatxu bat abarka urrututa dagoz dantzariak. Datozan urteak aurton langoak izango ahal dira!

Hasiko gara, bada, urriko bigarren zapatuan, zapaturo, ohiko orduetan eta leku berean, datorren urteko dantzaldiei begira entsaioak egiten. Urtero lez, dantzan edo dantzak ikasten edo doinu tresnak joten etorri gura badozue, pozarren hartuko zaituegu. Zeuen beharrizanean gagoz eta. **ERDUZE, BADA !!**

**ITXAS- ALDE**  
**Euskal Kultura Taldea**



**ZORIONAK BAKIO, ZORIONAK BAKIOTARRAK**

Zorionak ITXAS-ALDEko dantzari zareen edo izan zareon guztioi! Gora Bakio eta bakiotarrak!

Honezkero jakingo dozuenez, gure herriko dantza taldeak hogeita bost urte bete dauz aurton eta horrek nahiko meritu dauka gurean moduko herri txiki baten.

25. Urtebetetze hori dala eta, dagonilaren 7an Bilboko Orkestra Sinfonikoa ekarri genduan Bakiora, ekitaldi ederra eskainiz. Gero, oraindikoek ere parte hartuz. dei baten ondorioz, lehengo dantzariak eta musikariak batu izan dira zapaturo, udako ekitaldi nagusi hori prestatzeko asmoz. Guztiz polita eta pozgarria izan dala, esan geinke, aurtengo esperientzia hau. Ziur asko, horrek asmo barriak sortuko ebazan gure bizitzan. Beraz. goratu beharra dago bakiotarren ahalegina eta gogo ona. Probalekua jendez ganezka egoan!

Udagoiengan ere, gure taldearen urte guzti horreen historia azaltzen dauan liburu bat aurkeztu eta kaleratuko dogu.

Ikusten danez, urte guzti horreek igaro eta gero, ITXAS-ALDE dantza taldeak badauka arnasarik eta urtero urtero sartzen diran gaztetxu barriek sendotuta, gitxienez, beste hainbestarako bizia eskatu beharko dogu, gure herri txiki honen talde handi honentzat.

**Xabier, Birji eta Unai Beitia**  
**ITXAS-ALDEko kideak**



Urte guztiak jaietara itxaroten, txistue baino arinago igarotzeko. Egun hauek heltzen direnean etxeko lanak albo batera utzita, kalean ematen dugu denbora gehiena.

Eskolako gurasoak aurten, lan gehiago egin dugu «Txozna» prestatzen, zeren beti joan gara beste talde batzuekin batera eta oraingoan berriz bakarrik. Experintzi modura oso ona izan da, besterik, emaitzak ere onak izatea espero dugu.

Aurten gatz-gabeko jaiak euki ditugu. Ihazko gauza berberak errepikatzen dira. Imaginazio falta nabaritzen da antolatzaileen aldetik. Adibidez, gure txikiak, ez dute gauza handirik euki barrakak izan ezean, eta berehala gure poltsikoak hutsik.

Gaztetxoak berriz, prest ikusi ditugu ekintzetan parte hartzeko, tortilla lehiaketan, mozzorroetan etabar. Baina zer pasatzen da JOTA TXAPELKETAREKIN ? Eta HERRI-KROSSA, zergatik desagertu da? Orain egiten dena garrantzi handikoa izango da eta egin behar dela uste dugu baina zergaitik ez beste bat egin bertoko jentek parte har dezan ?

Parte hartzeko ekintzak bultzatu behar direla uste dugu. Bestalde, egia da «pasota» batzuk eginda gaudela, horregatik kritika honek balio beharko zuen baita ere bakoitzak bere buruari galde diezaion:

ZER EGITEN DUT NIK GAUZA GUZTI HORIEK ALDATZEKO ?

## URKITZA IKASTETXEKO GURASO ELKARTEA



Badira hainbat arrazoi honako orrialde hau betetzeko eta gure gaurko arrazoia agian ez da alaiena, baina esan beharra ikusi dugu, beraz hementxe dihardungo dugu ondoko lerroaldeetan.

Gurea, beste ezer baino gehiago kritika bat da, Udalarenganako kritika bat hain zuzen.

Gure kezka Bakioko jaietan eman zen. Gu baikiotar batzuk gara eta urtero bezala, aurton ere tortilla lehiaketara aurkeztu ginen. Gure helburua ez zen irabaztea, ezta gutxiago ere, baina partehartzeak beti dauka bere grina. Patuaren gauzak eta gure ezku onak direla medio, lehiaketan 2gn postua lortu genuen. HAU ZORIONA !! Baina nork pentsatuko zuen oraindik ere beste ustekabe bat izango genuela ?

Sariaren bila joan eta, zer eta «laverro» bat non ematen diguten !

Hori al da lehiaketa bateko bigarren saria ?

Gure ustetan lotsagarria da. Zelan liteke honelakorik ! Guk ez genuen ezer berezirik espero, baina hurrengo batetarako honelakorik ez egitea eskatzen dugu. Zerbait jartzekotan, fundamentuzko gauzaren bat ipini, ezta ?

Besterik gabe, lerroalde hauek bukatutzat joko ditugu esta beste behin honelako arrazoirik azaldu beharrean ez aurkitzearen esperantzaz gaude.

Gogoratu lehiaketak jartzea pentsatzen bada, beti ere sariak eduki behar direla; sariak eduki behar direla; saririk gabe ez dago lehiaketarik.

Beraz, datorren urteko «tortilla» lehiaketararte.



BAKIOKO GAZTE  
TALDE BAT



**Bakioko Abesbatzaren ohar txoak.** Udako gorabeheran ondorioak oraindik pairatzen ditugun arren, sartu gara jada 1.997-98 denboraldian.

Bakioko Abesbatzak urte oso honetan zehar ez du arnaza hartzeko beta handirik izan, eta ez ekitaldi asko izan dituelako baizik lan eta lan ibili garelako. Lan guzti hau udan emandako kontzerturako izan da, X. Musika Astean emandako kontzertua hain zuzen ere. Kontzertu honetan guretzat oso garrantzitsua den abesti bat abestu genuen (Bestelako gudariak) lehengo aldiz eta Bakioko Abesbatzarentzat Anton Larrauri deritzan musikagileak eginiko abestia.

Ez da hau, hala ere, egin dugun gauza bakarra, Bizkaiko Abesbatzen egunean ere parte hartu baikenuen Bilboko herrian. Beste gauza batzuen artean, abuztuaren 15eko aipuan egon ginen Amabirginaren eguna ospatuz. Abuztuaren azkeneko Bakioko jaietan parte hartu genuen. Denborak gure alde jo zuen eta BAKIOTARRAK poztasunez ospatu genituen hain gureak diren jaiak. Gure ustez, jaiak ekitaldi oso ezbernidez ospatuta egon dira eta hauetariko batzuk alkartasunez eraman ditugu aurrera. Denok parte hartuz; txupinazoa eta honekin baterako kalerik-kalekoa hurrenez-hurren. Urizarretako jaiak, mozorroen gaua... ere denok gozatu ditugun uneak dira.

Bestealde, alde txarrik ere ikusi dugu, hots, txoznen aldetik sortutako soinu-zarata eta baita tabernen aldetik sortutakoa ere. Guztiz ezinezkoa zen hitzetgitea edo lagunekin solasalditxo bat egitea eta are gutxiago abestea.

Komentatu baita, Paperetik-plazara ekitaldia oso ondo egon bazen ere, teknikoki akats bat edo beste izan zituela. Guzti hauek horrela izan da Bakioko Abesbatzak postasunez ospatu ditu jaiak, eta festa hasieran parte hartzea izan genuen. Bukatzeko esan, hasierako lerroaldean aipatu bezala, kurtso berri bat hastera goazela. Hasikera on bat izateko txango bat ere egin dugu Najerako haran eta Cogollako manstegietara eta oso ondo igaro genuen. Besterik gabe hurrengo baterarte agurtzen gara eta abesbatzaren ateak irekita daudela gogorarazten dizuegu.

### BAKIO 'KO ABESBATZA.

**ITXAS-ALDEko 16 eta 28 urteen arteko hogeitazterten artean egindako itaunketa honek aurtongo jaien ganeko euren eritxiak batuteko asmoa dau.**

**TXIRRITXOLAK.-  
GAZTEEK.-**

Zer deritxezue aurtengo jaiak?

Urtero urteroko egitarau antzekoa izan da aurtengoa. Aurten, baina, arteragoko urteetakoa baino urriagoa.

Barrikuntzarik ez da egon. Egun guztiak ekintzez hobeto orekatu behar dira. Jai makalak izan dira.

**TX.-** Zeintzuk dira, bada, egitarauari jagokonez, nabarmendu dozuezan hutzunerik handienak?

**GA.-** Azkeneko urteotan ez da koadrilen igoketarik egon, horrek jaiak polito jantziko leukez eta. Aurton artzain-txakur erakusketarik ez da egon. Berbenadunek erdera parra-parra egin

izan dabe. Kanpotik datozanok euskerea erabilteko eskatu behar jake. Horrez gan, berbena talde makalak izan dira aurtengoak.

**TX.-** Zer dala-eta uste dozue izan dala hau?

**GA.-** Entzun dogunetik, aurton jaietarako dirutza txikia egon ei da, 3,5 milioi edo. Hori izan leiteke arrazoia.

**TX.-** Zer egin behar da zeuen eritxian jaiak hobetuteko?

**GA.-** Herriko talde eta jendeari kobertura handiagoa emon: pelota eskolea, futbola,... Mozorroen jaiak lehen egiten zuten egunean egin. Helduentzako ekintza gehiago. Egunez gauza gehiago antolatu. Jaien eraketan herriko jendeak esku hartu daian, bestelango erispide, egitura eta baldintzak behar dira.

**TX.-** Zein izan da gogokoena izan dozuena jaietan?

**GA.-** Probalekuko ekintzak ederto baten egon dira. Txupinazoa, hobetu leiken arren, ondo egon da. Txoznen inguruko giroa ondo egoten da. Eneperi eguna. Umeentzako jolasak. Pelota partiduak.

Labur esanda, jaien eraketan herriko gazteek esku hartuteko gogo handirik ez dabe erakusten. Hori, barriz, jaien etorkizunerako ez da ezaugarri ona. Gure eritxian, honek hausnarketa sakona ekarri beharko leuke.

**ITXAS-ALDE DANTZA TALDEA  
1997ko. IRAILEAN**



**UDALEKU IREKIAK BAKION**IORITZ, TOMAS ETA MIKEL, PARTE HARTZAILEAK.

- G.** *Gustatu al zaizkizu Bakion egindako udalekuak ? Zergaitk ?*
- E. Ioritz:** Bai, oso politak izan direlako eta gauza asko egin ditugulako.
- Tomas:** Bai, gauza asko egin genituen.
- Mikel:** Bai, maitagarriak izan direlako eta monitor ona egon delako.
- G.** *Zein izan da gehien gustatu zaizun ekintza ?*
- E. Ioritz:** Kanoan ibiltzea eta hondartzan bainatzea.
- Tomas:** Kanoan ibili eta arko-tiroa.
- Mikel:** Arko-tiroa eta azken eguneko merendola.
- G.** *Datorren urteari begira, nahi duzu udalekurik egotea eta zer gehiago egitea gustatuko litzaizuke ?*
- E. Ioritz:** Bai, eta eskalada bat ipintzea.
- Tomas:** Bai, eta mendira joatea bizikletaz.
- Mikel:** Bai, jolastea, mendira joatea, han jatea...
- G.** *Eta lo egitea etxetik kanpo, zer ?*
- E. Hirurak:** Baiiii !!! Horixe, horixe, ze ondo !!!



## UDATIARRAK BE BAKIO ESKALDUNAREN ALDE

UDAL TXITO AGURGARRI HORRERI !

Uda izan da, gehien baten, Bakiora ekarri gauzana. Bakiok -bere haretzea, mendi - ingurua eta giro osasuntsua dirala eta- erakarri gauz aspalditik, zelan edo halan, atsedernaldi bila udak bertan emoten etortera. Udatiarrak gara izan, bada.

Gure aukeran, beste eragile batzuen artean, Bakio **Herri Euskalduna** izatea aintzakotzat hartu genduan. Bakioko hizkuntza ondare aberatsa gu eta gure seme-alaben onerako izango zalakoan edo. Udatiarrak bagara be, euskaldunak izan be bagara. Eta euskaldunak garan eskero, gure hizkuntzeari zor jakon begirunea eskatuten dogu hemengo honetan. Bakioko euskal nortasunak udatiarron geure norbanako euskal nortasuna sendotu behar deusku, sendotu be.

Hori guztiori dala eta, jarraian izenpetuten dogunok Udal txito agurgarri horrerri zera eskatu gura geunskio: «Udal horrek ahaleginik handiena egin daiala, Bai kioko lurretan edozein unetan **EUSKERIA** bultzatu eta berari lehentasuna emoteko».

Halan egingo badozue, gure Herriaren geroak eskertuko deusku batzuk eta besteei. Eskerrik asko.

103 izenpetza.

### BERBALAPIKOA

**UDATIAR**: udea emoten Bakiora datorrena.  
**AGURGARRI**: gurgarri, errespetagarri.  
**TXITO**: oso, guztiz, erabat.  
**GAUZ**: hondartza. (Bakioko berbea).  
**ATXEDENALDI**: barealdi, geldialdi.  
**ERAGILE**: faktore.  
**AINZAKOTZAT HARTU**: garrantzia emon, gogotan hartu.  
**ONDARE**: ondasun, patrimonio  
**BEGIRUNE**: lotsa, itzal, errespetu.  
**NORBANAKO**: norberaren, bakotxaren

## POEMA BAT INIAKI MARTIARTUREN ESKUTIK

*Euskalduna euskaldunen aurka hasi !  
 Zer jazoten jatzu ?  
 Zerk itxututen zaitu ?  
 Zeren bildur zara ?*

*Hara, euskalduna ! Begira !  
 Ama negarrez dozu.  
 Zeure erruz.  
 Baztertuta, saldu egin dozulaka.*

*Ez inari errurik bota,  
 ZEU izan zara-eta. ZU ZEU !*

*Otsa gure ardiak jaten etorri  
 eta zeuk kortako ateak zabaldu  
 Zelango saldukeria !*

*Non geratuten dira orain, bada  
 gurasoen izerdia eta odola ?  
 Nori?  
 Arin be arin ahaztu dozuz.  
 nork esango eban !*

*Min, bai, min egin deustazu  
 bihotz barru-barruan.  
 Nire bihotzari  
 negarraren negarrez,  
 odola dario.  
 Zeure erruz !*

*Nork parkatuko deustu ?  
 Baten batek, beharbada.  
 Nik neuk, ez !*

*«Dinaztar» eta «Baboatar» asko dago  
 oraindi nokarren gure artean.  
 Madarikatuak izan daitezala  
 gizaldi eta gizaldi guztietan !*

**Iniaki MARTIARTU**  
 1987ko jorrailean.



# EUSKEREAREN NORMALIZAZINORAKO PLANGINTZEA BAKION

Zuk, bakioko irakurle, Bermeorantzako bidean, Urizarreta inguruan, bide ertzean dagoan iragarki hori hainbat bider ikusiko zenduan.

- Ta, kontxo ! Bermeotarrok halakook ! Nondik nator ni, bada ? - esango leuke inoren harridurarako ezeze, gauzak egiterakoan be argi-argi itzi dabe eta. Bermeotarrok euren euskal nortasunari, euskaldun izateari eta euskeraz biziteko gurariari sendo ta errime eusten deutseelako. Eta gurean, zer ?

Ez leuke inork gauza barririk esango, Bakion euskerearen egoerea gero eta txarragora doala esango bagendu. Ahaleginak ahalegin. Danok, euskaldunok zein erdaldunok, asmatu geinken gauza nabaria da. Baina, hau nori deutso ardura ?

BA, NIRI NEURI, BAI ! Eta hauxe berau da idazki honen zergaitia.

Euskerea Bakion egoera negargarrian dago, nire eritxiz. Espainako erderearen menpean bizi da, atxilotuta balego lez. Erdereak arnasea eta bizia kendu gurarik bizi da. Sasoia da, jagokon lekuan eta duintasuna emon daioguzan. Kanean zein familian, administrazioan zein eskolan.

Euskaldunok Bakion. denpora guztian, herriko edozein tokitan euskeraz biziteko ahalmena euki gura eta eskatute dogu. Beste edozein hizkuntzatan egitera behartuta egon barik.

## **EUSKERAZ TA KITTU !**

Eta hau egia bihurtuteko bideak behar doguz.

Biderik zentzuzko eta beharrezkoena euskerearen aldeko NORMALIZAZINO PLANGINTZEA egitea eta aurrera ataratea da. Behar luzea eta erronka haundia izango da. Bai ! Baina, egin egin beharrekoa.

Bizitzaren arlo guztietan, bai agoz bai idatziz, ezertariko sostor barik erabiltzen dan hizkuntzeari NORMALDUA esaten jako.

Edozeri buruz berba egiteko, edozer adierazoteko normal-normal erabiltzen danari, hain zuzen.

Helburu nagusi garbia, bada:

## **BAKIO %100ean EUSKALDUN-EUSKALDUN IZAN DAITEN!**

Helburu honetara helduteko plangintza honek hurrengo baldintzak bete beharko leukez:

- egoki eta zehatza
- herriko egoera soziolinguistikoa gogoan hartukoa
- zabala eta alor guztietarakoa
- herri mailakoa
- denporan iraunkorra.
- herritarrek oneritxi eta eskuhartua
- udalak bultzatu eta babestua
- erabagiorrak dira arloei lehentasuna emotekoa

Plangintza honek orain bizirik dagoanari eutsi behar duetso eta, bide batez, bizitzea guztiz euskaldunago bihurtuten lagundu behar deusku. Azken baten, benetako HIZKUNTZA POLITIKA eraginkorra indarrean jaratea dogu. Bakion Bakiorakoa.

Adostasunik zabalenean oinarrituta, herritarren eta herriko erakundeen eskuhartzerik handiena da, egitasmo hau hazurmaminduko leiken bakarria.

Hizkuntza plangintza edota politika honek euskerearen erabilera bultzatu behar dau. Holantxe:

- euskerearen ohiko erabilera eremuak sendotuz
- euskerearen igorpena ondorengoentzako bermatuz
- euskerearentzako berbadun barriak irabaziz
- euskerearentzako erabilera eremu barriak irabaziz

Hau da, euskerea arlo nahi maila eta era guztietan - zein agoz zein idatziz - gero eta gehiago erabiltea.

Adostu edo onartuko dan hizkuntza politikea aurrera eroateko bada, beharrezkoa da diru-aurrekontua aurreikustea.



Edozein hizkuntza politika ezin leiteke sustatu, atzean bitarteko edo eskuarte ekonomikorik ez badauka. Agintariak, euskalduntze garabidearentzako galga izan barik eragile behar dabe izan. Kanpora nahi barrura begira. Udala euskerearen normalkuntza bidean dauan garrantzi beren-beregizkoa azpimarragarria da. Ezin onartukoa izango litzake, honelango hizkuntza plangintzaren bat erdikinetan egingo bagendu. Arazoari dauan garrantzi handia emon eta jaramon egin behar jake. Borondate ona ekintza bihurtu. Udalarengandik konpromizu zehatz eta benetakoak argi be argi egon behar dau.

Udalerri mailan, euskereak gune guztiz euskaldunak behar dauz, sare eta zerbitzu sozial guztiz euskaldunekaz. Eta udalak honetarako,

- Euskalduntasun instituzionalaren irudia emon behar dau, bai barru bai kanpo aldetik.
- Udalerriko herritarrentzako zerbitzuen betebeharrak euskeraz emoteko gauza izan behar dau.

Baina, ez eurak bakarrik. Lehen aitatu dogun lez, erabilerea herritarren esku dago eta. Eta egon beharko. Herritarrek plangintza hau eztabaidatu beharko leukee. Eztabaida teknikoa bultzatuz eta politikoa alboratuz. Euskerearen normalizazioa herritarrekaz batera, bakarrik, burutu ahal izango dalako. Behar honetara herritarrak erakarteko, beste ekintza batzuen artean, zuzpertzeko edo kontzientziatze lanak ez dira gero, ahuntzaren gauerdiko ez tulak.

Eginbidean agertu leitekezan sostorrak zelangoak diran identifikatu behar dira:

- Herritarren erantzun txatxarra.
- Aldaketa sozio-ekonomiko eta politikoez hizkuntza egoeran euki leikeen aurkako eragina.

Eragozpenoi, baina, aurre egin behar jake.

Plangintza orokorra indarrean jarteko ez daukagu denpora gehiago galtzekorik. Egin egin behar dogu eta. Harik arinen egin be. Udaleko agintarien aldetik jarrera baikor, sendo, zabal, ekinkor eta ausartarik ezean, ezin izango da ezer ganorazkorik egin. Euskal Herriko beste udalerriri batzuetan agintari politikoez euskerearen normalizaziorako plangintzearen aldeko sendoro agiri dira. Bermeotarrok, esaterako. Eta horrexegaitik miresten dodaz eta eurenganako nire begirune osoa dauke. Zintzotasunez alde jokatuten dabelako.

Euskaldun jaio nintzan,  
euskalduna hazi,  
euskera hutsik amak  
eustan irakatsi;  
euskera maite maite  
zabiltz neugaz beti,  
euskera hil ezkeru  
es dot gura bizi.


(Felipe Arrese-Beitia - 1881)

**Iniaki MARTIARTU**  
**1996.eko orrilan.**






**EUSKERAREN JAIAN  
BAITA ERE**



**SAIOA OLMO ETA IRATXE MADARIAGA**

**EIDER LLODIO ZUBIAUR**



**LIDE MADARIAGA GARCES DE LOS FALLOS**